

BEREHALAKO ASKAPENeko FENTANILOA. Garrantzitsua da baimendutako erabilera-baldintzak errespetatzea

Berehala askatzen den fentanilo transmukosoaren (FTM), erabilera (mihi azpiko konprimatuak, ahokoak, aplikagailuarekin edo gabe zurrupatzekoak, aho-filma, sudur aerosol/lainoztapena) **gutxienez astebetez min onkologikorako mantentze-tratamendu opioidea jasotzen ari diren paziente helduei soilik gomendatzen zaie, min irruptiboko gertakarien tratamendurako**¹. Azken urteotan FTM indikazioz kanpo gehiegi erabil daitekeelakoaren kezka areagotu egin da. Hori dela eta, AEMPSek segurtasun-alerta bat atera zuen 2018an, **mendekotasun- eta abusu-arrisku handiaz ohartaraziz**².

Euskadin, FTMren kontsumoa ia bikoiztu egin da 2014 eta 2020 artean. Era horretan, 2014an 21.593 ontzi kontsumitu ziren bitartean, 2020an 40.000 baino gehiago izan ziren. Emakumeen kontsumoa gizonena baino % 10 handiagoa da, gutxi gorabehera. Kontsumo horrek 6,7 milioi eurotik gorako zenbatekoa ekarri zuen 2020an³. **Tratamendu horietatik, aginduen % 40 inguru neoplasia gaiztoaren diagnostikorik ez zuten pazienteei eman zitzaizkien**⁴.

Farmakozaintetako Espainiako Sistemari jakinarazitako abusu eta/edo mendekotasun kasuen ia % 60 fitxa teknikoan jaso gabeko indikazioetarako FTM erabili zuten **pazientei dagokie**¹. Euskadin, deigarria da ondorio kaltegarri horiek Farmakozaintetako Unitateari infranotifikatzen zaizkiola⁵, bereziki kontuan hartuta desintoxikazio Unitateetan zergati horregatik **pazienteak artatzen direla**.

Egoera horren aurrean, AEMPSk hau gomendatzen du²:

- Berehalako askapeneko fentanilo mota desberdinen baimen-baldintzak errespetatzea.
- Min ez-onkologikorako FTM tratamendua jasotzen ari diren pazienteen tratamendu-beharra eta alternatiba terapeutikoen erabilera baloratzea. Paziente horien abusu-potentziala ebaluatu behar da, eta behar bezala informatu behar dira abusu-arriskuaz eta haien erabilerari lotutako mendekotasunaz.

Erabilera-kontsiderazioak:

FTM bidezko tratamenduak soilik honako pazienteetan hasi behar da: min onkologikoa duten paziente helduak eta, gutxienez astebetez, oinarrizko tratamenduan opioide nagusiak hartzen dituztenak (aho bidezko 60 mg morfina egunean, 25 µg-ko fentanilo-partxeak edo dosi ekianalgosikoa); baldin eta min irruptiboa badute. Arreta berezia jarri behar da abusu-arrisku handiagoa duten pazienteetan (paziente psikiatrikoak, adikzioen aurrekariak dituztenak etab.).

Dosia indibidualki doitu behar da, kontuan hartuta FTM aurkezpenek bioerabilgarritasun desberdina dutela eta ez direla trukagarriak^{1,6,7}. Aurkezpena aldatuz gero, dosia berriro doitzen hasi behar da.

Dosia doitu ondoren, egunean lau min irruptibo atal baino gehiago agertzen badira, oinarrizko opioidearen dosia handitu behar da¹.

Kontuan izan behar da opioideek eragindako hiperalgisia izateko aukera dagoela, dosia handitzean minaren kontrola nahikoa ez bada. Egokia izan daiteke fentanilo-dosia murriztea zein tratamendua etetea edo berrikustea⁸.

Gomendioak

- FTMak baimendutako indikazioan erabiltzea (gutxienez astebetez oinarrizko tratamendu opioidea duen paziente onkologikoa min irruptiboa).

- FTM bidezko tratamenduaren beharra baloratu, eta min ez-onkologikorako erabiltzen duten pazienteetan beste aukera terapeutiko batzuen erabilera aztertu.

- Pazientei eta haien senide edo zaintzaileei sendagai horiek etengabe erabiltzeak dakartzan abusu- edo gaindosifikazio-arriskuen berri ematea.

- Farmakozaintetako Unitateari eragin desiragaitz larrien edo ezezagunen susmoak jakinaraztea, abusua eta/edo mendekotasuna barne.

BIBLIOGRAFIA

1. Fentanilo transmukosoaren fitxa teknikoak. Eskuragarri: <https://cima.aemps.es/cima/publico/home.html>
2. Fentanilo de liberación inmediata: importancia de respetar las condiciones de uso autorizadas. 2018ko otsaila. Eskuragarri: https://www.aemps.gob.es/informa/notasInformativas/medicamentosUsoHumano/seguridad/2018/docs/NJ_MUH_FV-5_2018-Fentanilo.pdf?x17133
3. Farmazia Zuzendaritzako Informazio Sistemak. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.
4. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Informazio Sistemak. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua.
5. Fentaniloa: mendekotasuna, abusu, gaindosia eta erabilera desegokia. Farmakozaintetako Buletina, 51.2k. 2020ko abendua. 2-4 orrialdeak. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/boletines_farmacovigilancia/eu_def/adjunto/Farmakozaintetako-Buletina-51zb.pdf
6. Posible confusión en la prescripción y dispensación entre los medicamentos Pecfent e Instanyl. 2013ko martxoak. Eskuragarri https://www.aemps.gob.es/informa/notasInformativas/medicamentosUsoHumano/2013/docs/NJ-MUH_03-2013-pecfent-instanyl.pdf
7. Guía práctica para el manejo del dolor irruptivo oncológico Societat Catalana de Cures Palliatives. Eskuragarri: <http://www.academia.cat/files/204-5902-FITXER/GUIACastellanov1.pdf>
8. Medikamentuen segurtasuna: 2017-2018an sortutako seinaleak eta alertak. INFAC Buletina. 2019;27:1-9. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cevime_infac_2019/eu_def/adjunto/INFAC_27_1_segurtasuna.pdf